

TALLERES DE GUERNICA



(Santi Yaniz)

Bizkaia  
Gernika

Gorka Pérez de la Peña

Talleres de Guernica SA empresa Gandarias sendiak sortu zuen, 1916an. Gandariastarrek Gernika aldean industrializazioa bultzatzeko interesa zuten, inguru horrek abantaila handiak eskaintzen baitzituen. Horrexegatik ireki zuten bertan lantegia, inbertsioak dibertsifikatzeko industrialde berria sortuta. Tailerrak Basabarrena ibarrean ipini zituzten; instalazioetarako lur lau zabalak zeuden inguru horretan, komunikazio-azpiegitura onak (Bilbo eta Bermeo arteko errepidea eta Zornotza-Gernika-Sukarrieta trenbidea, lantegiaren jabetzakoa) eta lan-esku faltarik ez.

Hasiera batean, fabrikak hiru pabiloi (lehenengoan bulegoak eta makina-erreminta, bigarrenean forjaketakoa, eta hirugarrena modeloena), transformadorea, bi biltegi eta aroztegia zituen. Hiru instalazio hauek, guztira, 4.803 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia hartzen zuten. Talleres de Guernica etxeak bulegoen eta makina-erremintaren pabiloia Astra, Unceta y Cía. etxeari saldu zion 1968an, eta bulegoak ipini

Talleres de Guernica S.A. fue una empresa fundada por la familia Gandarias en 1916. La extensión de sus actividades a Gernika se debió a su interés por impulsar la industrialización de esta villa en razón de las excepcionales ventajas que ofrecía, y así crear una nueva área industrial donde diversificar sus inversiones. Para el emplazamiento de los talleres se escogió la vega de Basabarrena, que contaba con amplios terrenos llanos para las instalaciones, una buena infraestructura de comunicaciones —la carretera de Bilbao a Bermeo y el ferrocarril Amorebieta-Gernika-Pedernales, que además era de su propiedad— y una abundante mano de obra.

La fábrica estuvo integrada inicialmente por tres pabellones —el n.º 1, de oficinas y máquina herramienta, el n.º 2, de forja, y el n.º 3, de modelos—, transformador, dos almacenes y taller de carpintería. La superficie total construida que ocupaban estas tres instalaciones era de 4.803 m<sup>2</sup>. En 1968 Talleres de Guernica vendió el pabellón de oficinas y máquina herramienta a Astra, Unceta y Cía., que

zituzten bertan. Enpresa-jarduera gainerako bi pabiloietan jarri zuten, eta bulegotarako beste eraikin bat ere altxatu zuten. Bulegotarako eta tailerretarako jatorrizko eraikina abandonaturik egon da, Astra, Unceta y Cía. enpresak 1998an ateak utzi zituenetik. Egun, sormen lantegia birgaitzen eri dira.

Fabrikaren proiektua Ricardo Bastida arkitektoaren lan bikaina da, eta Sezesionismo vienarraren kutsua ageri du; 1916 eta 1917 bitartean egina da, modernotasunaren adierazpena, irakurketa aurre-arrazionalista egiten badiogu.

Talleres de Guernica enpresaren fabrika egitean, Bastidak Europako abangoardien aukera modernizatzaileak hobetsi zituen (Sezesio vienarra) XIX. mendeko eklektizismoa gainditzeko bidetzat, nahiz eta garai hartan Espainiako arkitekturan zer orientazio jarraitu eztabaidatzen hasi ziren. Aukera hori inor gutxik egin zuen Espainian; hori dela eta, proiektu honen garrantzia indartuta geratzen da, Espainiako arkitekturako aurre-arrazionalismoaren salbuespen-adi-bideetako bat baita. Hori horrela izanik, Europako onenen artean sartu behar dugu.

Bastidak eta Demetrio Ribesek tankerako irakurketa egin zuten Sezesionismo vienarraren inguruan; hots, funtzioa formara doitzeko beharra lehenesten zuten. Proiektuei ekiteko orduan, arkitekto hau alderdi funtzionaler arduratzen zen lehenik, programaren eskakizunak zehatz-mehatz aztertuz eta, jarraian, aipatutako eraikin mota horretara ondoen egokitzen zen hizkuntza erabakiz. Planteamendu hori lortzeko, funtsezkoa izan zen hormigoi armatua erabiltzea; berau zen garaiko teknologia modernoena, eta, hari esker, fatxadak karga-horma izatetik libratu eta ahaleginak banaketa-programaren funtzionalitatean ipintzen zituzten (SCHORSKE, 1981, 109).

Bastidak, Ribesek ez bezala, vienarren apaindura soilari eta urriari ez zion uko egin; izan ere, eraikina hiri-egituran txertatuta egotea oso garrantzitsutzat zuen. Horrek monumentu-tratamendua eskatzen zuen; horrenbestez, proiektu bakoitzaren berezko ezaugarrietara egokitzen zuen tratamendua (eliza bat, lantegi bat, etxebizitza-eraikin bat, etab.).

Laburbilduz, Talleres de Guernica enpresarentzat egin-dako eraikinean, Bastidak konposizio-sintesi bikaina lortu zuen, fabrika-erabilerak eskatutako arrazionaltasunaren eta industriako monumentu-estetika baten lorpenaren artean. Finean, mugimendu modernoaren arrazionalismoaren atarian zegoen arkitektura hori.

Proiektuak bi eredu biltzen ditu: lehen pabiloirako pisu-fabrika (bulegoak eta makina-erreminta), eta bigarren eta hirugarren pabiloietarako industria-nabea (forjaketa eta modeloak, hurrenez hurren).

Lehenengo pabiloia hormigoi armatuzko egituraz egin da dago, eta beheko solairuan material bereko armadura batez indartuta ageri da. Estalkia laua zenez, sumendi-porlanez irazgaiztu zuten. Kanpoko murrueetan azta osoko itxitura dago, ostikoetan izan ezik, horietan bikoitza baita.

Pabiloiairen apaingarriak lau fatxadetan errepikatzen dira, eta funtsean eraikinaren egitura-balioak indartzen dituzten hainbat baliabidez eginda daude. Hauexek dira: pilastra

lo destinó a sus oficinas. La empresa se concentró en los dos pabellones restantes y construyó un edificio nuevo para oficinas. El edificio original de oficinas y taller se encuentra en proceso de rehabilitación para destinarlo a fábrica de creación tras haber estado abandonado desde su cierre en 1998.

El proyecto de esta fábrica es un brillante ejercicio del arquitecto Ricardo de Bastida en clave de secesionismo vienés, realizado entre 1916 y 1917, que supone una afirmación de modernidad por su lectura prerracionalista.

Con Talleres de Guernica Bastida apostó –en el preciso momento en que se abría el debate en la arquitectura española sobre qué orientación seguir– por la alternativa modernizadora de la vanguardia europea, representada por la secesión vienesa, como vía para superar el eclecticismo decimonónico. Esa elección, por ser la opción minoritaria, refuerza la trascendencia de este proyecto como uno de los ejemplos excepcionales de prerracionalismo en la arquitectura española, y, como tal, hay que encuadrarlo entre los mejores de Europa.

La lectura del secesionismo vienés realizada por Bastida fue similar a la de Demetrio Ribes, puesto que en ella primaba la necesidad de ajustar la función a la forma. A la hora de resolver los proyectos, este arquitecto empezaba solucionando los aspectos funcionales a través del estudio concienzudo de las exigencias del programa, para a continuación decidir el lenguaje que mejor se adecuaba al tipo de edificio en cuestión. Un aspecto decisivo para el logro de este planteamiento fue la utilización del hormigón armado, la tecnología constructiva más moderna de la época, ya que al liberar a las fachadas de su condición de muros de carga posibilitaba centrar los esfuerzos en la funcionalidad del programa distributivo (SCHORSKE, 1981, 109).

Bastida, a diferencia de Ribes, no renunció a la decoración sencilla y mínima del vienés, debido a que confería una gran importancia a la integración del edificio en el tejido urbano. Ello exigía un tratamiento monumental que él adaptaba a las especificidades propias de cada proyecto, ya se tratase de una iglesia, una fábrica, un edificio de viviendas, etc.

En resumen, con Talleres de Guernica, Bastida alcanzó una brillante síntesis compositiva entre la racionalidad exigida por el uso fabril y el logro de una estética monumental industrial. Una arquitectura, en definitiva, a las puertas del racionalismo del Movimiento Moderno.

El proyecto integra dos modelos: la fábrica de pisos para el pabellón n.º 1, de oficinas y máquina herramienta; y la nave industrial para los pabellones 2 y 3, de forja y modelos respectivamente.

El n.º 1 está realizado con estructura de hormigón armado, que en la planta baja se encuentra reforzada por una armadura del mismo material. La cubierta, que era plana, se impermeabilizó con cemento volcánico. Los muros exteriores se cierran con asta entera salvo en los machones, donde el asta es doble.

La ornamentación de este pabellón, que se repite en las cuatro fachadas, se fundamenta en una serie de recursos que potencian los valores estructurales del edificio. Estos



3. pabiloiko fatxada. (Santi Yaniz)

Fachada del pabellón nº 3. (Santi Yaniz)

erraldioak, hizkuntza klasikoan inspiratuta eta diseinu ikusgarriko kapitelen (ohikoak Bastidaren obretan); lerro paralelo bikoitzeko zerrendak; errepikatutako laukiak; erlojuaren atala sarbide nagusia nabarmentzeko; eta estalki-buruan dagoen karela, enpresaren anagrama duena. Apaindura garbi horrek egitura nabarmentzen du, eta, gainera, formatu handiko hutsarteetara baldintzaturik dago (3,25 metro eta 2,25 metro garai beheko solairuan eta lehenengoan, hurrenez hurren). Hutsarte horien bitartez aretoak lanerako beharrezko argia jasotzen du.

Beheko solairuan makina-gela zegoen; tornuak, fresagailuak, erreminta-biltegia, tailer-buruaren bulegoa eta bi komun zeuden. Lehenengo solairuan, batetik, fresagailuen eta tornu biragarrien sekzioak eta doitze-bankua zeuden, eta, bestetik, bulegoak. Bakoitzak gela erdia hartzen zuen, bere eskailera zeukan eta hauxe zen banaketa: zuzendaritza-bulegoa, bulego tekniko eta administratiboak, artxibategia, idazkaritza, laborategia eta probaketa-tailerra. Pabiloiaren egituraren eremu malguak, garbiak eta argiz beteak ikus ditzakegu; 50 metro luze eta 5 metro garaiko bi gela daude.

Aurrealdean lorategi bat ere bazuen, oso diseinu dotoreko parterre eta guzti, garbitasun arkitektonikoaren irmotasuna neurtzen eta gorensten lagunduz.

Hermenegildo José Murga arkitektoak 1926an eraberritu eta solairu bat gaineratu zion. Dena den, hasierako proiektuari begirune handia izan zion, Bastidaren diseinua oso zintzo errepikatu baitzuen. Baina Astra, Unceta y Cía. enpresak bulegoak ipintzeko 1968an egin zuen eraberritzean, atal hau erabat aldatu eta bere balio espezifikokoak kendu zizkieten.

Forjaketa-tailerra (bigarren pabiloia) nabe handia da (25,5 metro luze eta 12 metro zabal), eta 8 metroko garaierako argia du. Zubi-garabi lerrakor handia du, murruari atxikitako pilastretan bermatuta. Nabe garbia da, hormetan dauden leiho handiei esker.

son: las pilastras de orden gigante inspiradas en el lenguaje clásico y rematadas por capiteles de vistosos diseños, muy característicos del lenguaje de Bastida; las bandas de líneas paralelas dobles; los recuadros repetidos; el cuerpo del reloj para destacar el acceso principal, y el antepecho que remata la cubierta con el anagrama de la empresa. Esta decoración limpia, aparte de resaltar lo estructural, está condicionada a los huecos de gran formato (de 3,25 y 2,25 m de altura en planta baja y primera respectivamente) que inundan las salas de luz para así responder a las necesidades requeridas por un espacio de trabajo.

La planta baja se dedicaba a sala de máquinas que alojaba los tornos y las fresadoras; además contaba con almacén de herramientas, despacho del jefe de taller y dos cuartos de baño. En la planta primera se ubicaban, de una parte, las secciones de fresadoras y tornos revólver y banco de ajustaje; y de la otra, las oficinas, ocupando cada una de ellas la mitad de la sala. Éstas disponían de escalera propia y se distribuían en despacho de dirección, oficinas técnica y administrativa, archivo, secretaría, laboratorio y taller experimental. El pabellón presenta una articulación de espacios flexibles, limpios y llenos de luz, con dos salas de 50 m de largo y 5 m de altura cada una.

También contaba con un jardín delantero con patrones de diseño muy elegante que ayudaban a ponderar y magnificar la rotundidad de su pureza arquitectónica.

En 1926 el arquitecto Hermenegildo José Murga lo reformó para añadir una altura más. Esta intervención fue respetuosa con el proyecto inicial, ya que repitió el diseño de Bastida con estricta fidelidad. En cambio, la reforma que realizó Astra, Unceta y Cía. en 1968 para instalar sus oficinas modificó radicalmente este cuerpo, despojándolo de sus valores específicos.

El taller de forja —el pabellón n.º 2— es una gran nave de 25,5 m de largo y 12 de ancho, y una luz de 8 m de altura. Dispone de una grúa puente corrediza que descansa sobre unas pilastras adosadas al muro. Es una nave diáfana gracias a las ventanas de gran formato que rasgan los muros.

Fatxaden diseinua oso ederra da, Sezesionismo vienarraren ildotik. Kontraste kromatikoa (zuria eta marroia, orain dela gutxi eginiko erreforma batek eraldatuta), harlangaitzeko zokaloz eta lodiera handiko iztukuz lortutako egitura-efektua, eta forma geometrikoen eta lerromakurren arteko desberdintasuna uztartzen ditu. Baliabide hauek oso soilak dira, industria-arkitekturaren funtzionaliterara egokitzeko, baina, aldi berean, eraginkortasun estetiko izugarria dute.

Hirugarren pabiloia, modeloena, 85,5 metro luze eta 24,5 metro zabal zen, eta 6 metro garaiko argia zuen; hormigoi armatuzko egituraz eraiki zuten, eta metalezko zertxadun shed erako estalkia zuen (zerra-hortz erako estalkia). Hormigoi armatuzko zutabeek 6 metro zabaleko hiru hormarte osatzen dituzte, eta kapitel bikoitza daukate. Goikoek gatzariei eusten diete, eta behekoek, berriz, zubi-garabi lerrakorrari.

Bastidak espazio aldagarria sortu zuen, industria-prozesuak eskatzen zituen beharretara arazorik gabe egokitzeko helburuz; gainera, alboko fatxadetan dauden hutsarte jarraituen zerrendaren bitartez argia sartzen da, baita fatxada nagusiko leihate handietatik ere.

Lehen aipatutako Murga arkitektoak 1942an eraberritu zuen eraikina; hala, beste bi nabe egin eta aurretik zeuden hirurak luzatu zituen, azalera nabarmen handituta. Handitze-lan horretan, nolana ere, Bastidaren proiektua ondo errespetatu zuen, diseinua zehatz-mehatz errepikatu baitzuten.

Fatxada nagusiaren diseinuak lehendabiziko pabiloiaren egikera bereko kutsu vienarra du; konparazio batera, hutsarteak inguratzen dituzten pilastra bikoitzak, zuriaren eta marroiaren arteko kontraste kromatikoa, eta estalkiaren buruan enpresaren anagrama jasota daukan karela, kolore ikusgarriko azulejoz egina. Alboko fatxadetan hizkuntza garbiagoa dauka; izan ere, apaingarriak baztertuta daude, mu-

El diseño de las fachadas es de gran belleza, en línea con el secesionismo vienés. Se juega con el contraste cromático (blanco y marrón, que se ha modificado en una reciente reforma), el efecto textural conseguido con el zócalo de mampostería y los estucos de gran grosor; y la disparidad entre las formas geométricas y las curvilíneas. Estos recursos son muy sencillos para así adecuarse a la funcionalidad de la arquitectura industrial, pero a la vez de una gran eficacia estética.

El n.º 3, de modelos, era un pabellón con tres naves de 85,5 m de largo y 24,5 m de ancho, y una luz de 6 m de altura, construido con estructura de hormigón armado y una cubierta que se practica por *shed*, en dientes de sierra, de cerchas metálicas. Los pilares de hormigón armado, que forman tres crujiás de 6 m de ancho cada una, llevan un doble capitel; el superior sostiene las jácenas y el inferior la grúa puente corrediza.

Bastida conformó un espacio dúctil que se podía adecuar sin dificultades a los diferentes cambios requeridos por el proceso industrial, y al que baña la cálida luz que se filtra a través de la franja de huecos continuos que rasgan las fachadas laterales, y de los grandes ventanales de la fachada principal.

En 1942 lo reformó el arquitecto Murga, arriba citado, quien añadió dos nuevas naves y prolongó las tres preexistentes, aumentando así de forma considerable su superficie. Esta ampliación fue respetuosa con el proyecto de Bastida, al repetir miméticamente su diseño.

El diseño de la fachada principal se resuelve con un lenguaje vienés de factura idéntica a la del pabellón n.º 1. Se juega con las pilastras pareadas que enmarcan los huecos, el contraste cromático y el antepecho que remata la cubierta con el anagrama de la empresa, realizado con azulejos de vistoso colorismo. En las fachadas laterales el lenguaje es más limpio porque se suprimen las referencias



3. pabiloiko fatxadaren xehetasuna. (Santi Yaniz)  
Detalle de la fachada del pabellón n.º 3. (Santi Yaniz)

